

TANIA SIRIANY

**"GORROTOAREN  
DISKURTSOAK ETEKIN  
POLITIKOAK EMATEN DITU"**



4 > 20  
URTE



# UDALAREN OPOR JARDUERAK

2.300 leku

.....

Izena emateko epea

**Apirilak 1 > 14**

.....

info+: [vitoria-gasteiz.org](http://vitoria-gasteiz.org) | Tel: 010

Herritarrei laguntzeko bulegoetan





# ALEA 188

2019-03-29 OSTIRALA

AZALEKO IRUDIA:

J. GALLEGO

## Aurkibidea

- 4 **Sakonean.** Taula gainean, Arabako antzerkigileen eskutik.
- 10 **Protagonista.** Tania Siriany, Arrazakeriaren Aurkako Plataformako kidea.
- 14 **Iritzia.** 'Erregina', Igor Salazar.
- 15 **Iritzia.** 'Irakur', Irati Maraño.
- 16 **Sarean.** #Heroina.
- 17 **Iruditzen.** Uraren Mundu Eguna.
- 18 **Politika.** Hauteskundeetarako hautagaiak.
- 19 **Politika.** 'Ez we can't' egitasmoa, Aiaraldean.
- 20 **Gizarte.** Adinekoen egoitza pribatuen gaineko kontrola.
- 22 **Esanak eta laburrak.**
- 24 **Kultura.** Arabako Bertsolari Txapelketako finala jokatuko dute larunbatean.
- 27 **Euskara.** ALEAk Trebiñun egingo du 'klika'.
- 28 **Gure bazterrak.** Okondo.
- 29 **Irakurleen txokoa.**
- 30 **Agenda.**

### Bultzatzaileak



# berria goiena

### Laguntzaileak



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

### Argitaratzailea

Arabako Alea Komunikazio Taldea

### Zuzendaria

Aritz Martine de Luna

### Erredakzioa

Anakoz Amenabar

Mirian Biteri

Esti Lanao

Estibx Ugarte

Juanma Gallego

### Komertziala

Erlantz Anda

### Inprenta

GERTU Inprimategia

**Tirada:** 2.100 ale

### EGOITZA NAGUSIA

Eskola kalea 10, 7. bulegoa

01001 Gasteiz (ARABA)

Tel.: 945 71 60 09

info@alea.eus

### PUBLIZITATEA

publizitatea@alea.eus

Tel.: 695 63 28 62

### HARPIDETZA

harpidetza@alea.eus

Tel.: 945 71 60 09

**Lege Gordailua:** VI-32-2015

**ISSN:** 2386-8961



Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Álava



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

ALEA aldizkaria harpidetza bidez banatzen da, urteko 55 euroan.  
Informazio gehiago: [www.alea.eus/harpidetzak](http://www.alea.eus/harpidetzak)

ALEAK ez ditu bere gain hartzen IRITZIA saillean edo bestelako  
orrialdeetako kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Asteko kolaboratzaileak: Igor Salazar eta Irati Maraño.





# Momentu errepikaezinek kateatuta

Antzerkiaren Nazioarteko Eguna aitzaki, Arabako taulek erakusten dutena eta agerikoa ez dena kontatu diote ALEARi antzerkigileek. "Apustu sendo baten" beharraz hitz egin dute ofizioa ondo ezagutzen duten Baratza, Gasteizko Eszena-Tailerra edota Teatro Paraisoko kideek.

Testua: **Anakoz Amenabar**



**B**estearekin elkartzene labur bat, antzoki baten iluntasunean, keinu baten, hitz adierazgarri baten babesa besterik ez dagoela". Carlos Celdran antzerkigile kubatarak Antzerkiaren Nazioarteko Egunean, martxoaren 27an, aipatutako "elkartze-une" berezi horrek ehunka lagun batzen ditu astero Arabako taulen inguruan. Taula horiek mugiarazteko beharrezko indarrak ba al dago, ordea? Nolakoak dira taulatik kanpo ikusten ez diren uneak? Arte eszenikoak bizimodu dituzten hainbat lagunekin izan da Alea; antzoki gaineko eta, batez ere, atzeko poz eta nekeak ezagutu ditu Unai Lopez de Armentia, Pilar Lopez, Javier Alkorta Txortas eta Julio Cortazarren eskutik.

Astero astero, ofizioaren harimutur desberdinei heltzen die Mertxe Guillen kazetariak Radio Vitoria eta Radio Euskadiko uhinetatik. *El último apuntador* saioari esker, arte eszenikoen ekoizpenen inguruan lanean dabiltzan dozenaka lagun ezagutu ditu. Eskenak –Euskadiko Ekoizle Eszenikoen Elkarteak– bultzatuta, inguruko jarduera eszenikoen berri ematen hasi zen, eta, geroztik, bost denboraldi egin ditu. "Denek hitz egiten zuten obra handien inguruan, estreinaldien inguruan, baina konturatu ginen inork kontatzen ez zuen lana zegoela atzetik, eta ezagutzera emateko beharra zegoela". Aktore eta zuzendarekin batera, programatzaile, banatzaile, makillatzaile edota argitzaileak igaro dira irratsaiotik, makineria handi baten katebegiak. "Inguruan sekulako profesionalak ditugula deskubritu dut programarekin, tipi-tapa

'Tiempo de silencio' obran parte hartu du Julio Cortazar aktore gasteiztarak, laster Donostian ikusi ahal izango da. TEATRO DE LA ABADÍA



euren bidea egiten ari direnak. Emaizta bakarrik ikusten dugun arren, antzerki obra sortzea sekulako sormen lana da, esfortzu fisikoa batzuetan eta ekonomikoa sarri". Lan horretarako, baina, behar besteko babesik ez dutela uste du: "Ez dut uste industria osasuntsua denik hau, ez Araban ez inon. Besteak beste, laguntza publikoen beharra dutelako sortu eta lan egiteko; oso zaila da laguntza behar ez duen konpainiarik aurkitzea. Eta azken urteetako murrizketak pairatzen ari dira oraindik".

Artisten lana babesteko hartu daitezkeen neurrien artean, produkzioak sortzeko espazio publikoak proposatu ditu. "Antzoki ugari ditugu Gasteizen, baina ekoizpen bat izan arte hutsik daudenak. Beharbada horiek artista egoiliarrekin nola bete pentsatu



daiteke, haien lanak prestatzeko ganorazko leku bat izan dezaten".

Pauso bat harago joan da Javier Alkorta *Txortas* aktore eta TAE Gasteizko antzerki eskolako gidarietako bat. "Indarra badago, jende asko dago lanean, baina zergatik ezin dira indarrak batu proiektu interesgarriagoak sortzeko?". Haren ustez, arte eszenikoek hauspoa berreskuratu dezaten "erakundeen benetako apustu bat" behar du Arabak. "Oso erraz egiten dugu Mendizorrotza eta Buesa Arena handitzeko apustua. Zergatik ez arte eszenikoetarako halakorik? Ez dut halako eraikinik eskatzen, hiritarrak harro sentitzeko moduko apustu bat baizik; Santa Mariaz edota Baskoniar harro sentitzen diren modu berean, antzerkiaz ere harro senti daitezten".

Atzera begira, garai batean Gasteizen eskaintzen zen antzerkia gogoratu du. Besteak beste, Tadeusz Kantor ikusi zuen Guridi antzokian 1982. urtean, polonieraz, eta Frantziako Maguy Marin koreografoaren lana bi urte beranduago. "Ikusteko zailak ziren piezak etortzen ziren. Kantor, ziurrenik, profesioak ez direnek ez dute ezagutuko, baina European antzerkia ulertzeko modua aldatu zuen, mugarri bat izan zen, eta hemen izan genuen". Programazioak programazio, urte hauetan "aukerak galdu" egin direla uste du TAEko kideak. "Zer gertatu da denbora guzti honetan horrek arrastoa ez uzteko? Zergatik ez dago gazterik Principalen? Ez dut uste programazioaren ardura soilik denik; ofizial itxurako guztiak atzera egiten du, eta hori triste da, eta jorratu beharreko gaia". Gazteak lan klasikoetara eta garaikideetara erakarri behar direla uste du Alkortak, eta horretarako estrategia bat behar dela dio.



Antzerkira erakartzeko lanean 40 urte bete ditu TAEK, profesional zein zaleentzako aukera desberdinekin.

"Norberak gustuko aldea bilatuko dio antzerkiari; dudarik gabe, hainbat alde esnatzen ditu antzerkia egiteak: sozializatzeko aukera, autoestimua... eta ez da zertan profesional izan behar", azaldu du Alkortak. Besteen aurrean zaren moduan agertu, eta egindakoa erlatibizatzeko aukera ere badela uste du: "Askorentzat, euren egoera bideratzeko modu bat da hau; eskolan *bullyng* kasuak izan dituzten haurrak izan ditugu, hemen diren moduan agertu eta inork ez dituelako epaituko".

Antzerkia profesioa izatea aukeratu dutenen artean, berriz, Pilar Gil, Marcos Marin, Iñaki Rikarte edota Julio Cortazar igaro dira TAEtik. "Nik hemen deskubritu nuen aktore izan nahi nuela; Carmen Ruiz

irakaslearekin izan zen, haren jolas eta ariketen bitartez", gogoratu du Cortazarrek. Cristina Rotaren eskolan jarraitu zuen ibilbidea, urte batzuk beranduago, Madrilen, eta Teatro de la Abadiara egin zuen jauzi ostean. Valle Inclanen *Ligazón* obrarekin gerturatu zen antzerkira, eta Martin-Santosen *Tiempo de silencio* du esku artean azkenaldian. "Antzerkia gustuko dut, haren alde egin dut apustu eta lan egiten jarraitzen dut, baina egia da ofizio duinaz dugun irudia askotan bertan behera geratzen dela, egin nahi ez direnak egin behar izaten direlako". Gizartea eta kulturarentzat "ezinbesteko osagaia" da antzerkia, baina ez dago kulturaren aldeko "apustu seriorik", Cortazarren ustez. "Herritarrek antzerkia ezagutu eta antzerki-gosea izan dezaten, inbertsioa egin behar da, eta hori da falta dena".

### "Makalaldia"

Julio Cortazarren antzera, arte eszenikoetan Arabatik kanpo murgildu zen Unai Lopez de Armentia. Ingalaterra eta Alemanian hainbat urte egin eta gero, Gasteizen areto bat irekitzea pentsatu zuen, Garazi arrebarekin batera. "Gure alorrean aukera bat bilatzeko zakar zegoen egoera, eta, aldi berean, leku independente eta alternatibo baten beharra zegoela ikusi genuen; orduan, Baratzaren aretoa martxan jartzea pentsatu genuen, duela sei urte". Bertako konpainiek euren lanak prestatzeko gune bat dute han, Gasteizko Aldabe plazan, eta laguntza teknikoa edota formazioa ere ez dira falta. Ibilbidean atzera begira, aurreikuspenak gainditu dituztela nabarmendu du Lopez de Armentiak:



Ezkerrean, goian. Teatro Paraisok Abetxukun eskainitako haurrentzako Kunarte saio bat. TEATRO PARAISO/

Ezkerrean, behean. Baratzako Unai Lopez de Armentia aktorea, 'Hot water' lanarekin. BARATZA

Goian. Porphol taldeak zuzentzen du, 1986. urtetik, Gasteizko eszena-arte tailerra. GASTEIZKO ESZENA-ARTE TAILERRA



Gasteizko Eszena-Arte Tailerreko ikasleak, Andre Maria Zuriaren plazan egindako 'Ezkontza' obran. GASTEIZKO ESZENA-ARTE TAILERRA

## "ZERGATIK EZIN DIRA INDARRAK BATU PROIEKTU INTERESGARRIAGOAK SORTZEKO?"

JAVIER ALKORTA

## "BEHARREZKOA DA GAITASUN KREATIBOAK GEHITZEA AHALBIDETUKO DUEN MOTORE BAT"

PILAR LOPEZ

"Sorkuntza lanei dagokionez eta publikoak eman duen erantzunari dagokionez, oso positiboa da ibilbidea; bestelako emaitza da negozioari dagokionez, ordea...". Kulturak herrialdean "makalaldia" bizi duela uste du, eta benetako "inplikazioa" eskatu die agintean daudenei. "Ez dut uste espazio fisiko gehiago behar duenik Gasteizek, bete gabe dauden antzokiak betetzeko inplikazioa baizik".

Antzerkiak bete behar duen lekuaren bila, eremu artistiko ezberdinetako sortzaileen arteko hartu-emana sustatzea garrantzitsua dela uste du Teatro Paraiso antzerki taldeko Pilar Lopezek: "Beharrezkoa da topagune hau bideratuko duen kultur zein arte zentro bat garatu, probokatu ala iradokitzea; diziplinarteko topaketak eta gaitasun kreatiboen gehiketak ahalbidetuko dituen motore bat".

TAErekin batera, duela 40 urte jarri zuten martxan Paraiso, haur eta gazteentzako lan eszenikoak sortu eta zabaltzeko xedez. "Dena egiteke zegoen, eta auzo-antzerki talde bat sortu genuen. Orduetik, antzerkia gure etxea izan da, bertan hazi gara, eta artearen plazetara gerturatu gara antzerkiaren eta haurren eskutik", gogoratu du Lopezek. Hala, Europa mailan haurrentzat eginiko dramaturgia garaikide esanguratsuetan lan egiteko aukera izan dute; eta, bestek beste, *Erpurutxo* ikuskizunaren italierazko bertsioarekin bira egin berri dute Italian, Espainian eginiko 3.050 funtzioen ostean.

Celdranek irudikatutako "elkartze-une" berezi horietako bat izan dute oraintsu Paraisoan, Felipe Tramoistaren eskutik. Tartean taldearen *Ghero*, Jose Luis Gomezek antzeztutako *Unamuno* edota Yayo Caceresek zuzendutako *Todos hieren y una mata* ere izan dira elkarrizketatuen ahotan, kateatuko dituzten beste lanen zain. ■■■



# SA-KA-TU BO-TOI BAT, E-TA LIS-TO

Orain, **Euskaltel**en 4K Dekoarekin, zuzenean ikus ditzakezu telebistan Netflixeko zure telesailik gogokoenak.

4K DEKOA



LA  
**CASA  
DE LAS  
FLORES**

IKUSTEKO PREST DITUZU  
KAPITULU GUZTIAK | **NETFLIX**

[euskaltel.eus/netflix](http://euskaltel.eus/netflix) | Dendak | 1717



euskaltel

Aidatu, 4K deskodetzailearekin, telebista ikusteko zure era. Eskuragailu Euskaltelaren Premium Extra+ TBa dutenentzat. Netflix-eko harpidetza ez dago sartuta. 4K deskodetzailearen bidez edo Euskaltelaren Bezeroaren Gunearen bidez harpidetza zailtzeko. Ultra HD 4K izateko elementu hauen mende dago: harpidetza-mota, Interneteko zerbiltza, gailuaren funtzionaltasuna eta edukien eskuragarritasuna. [www.netflix.com/TermsOfUse](http://www.netflix.com/TermsOfUse)

Babesle teknologikoa:



# "Buruan sartutako estruktura kolonialetik dator arrazakeria"

**TANIA SIRIANY** ARRAZAKERIAREN KONTRAKO PLATAFORMAKO KIDEA

Arrazakeriaren aurkako eguna izan da martxoaren 21ean, eta, dataren bueltan, gaia lantzeko hainbat mobilizazio izan dira Gasteizen, Arrazakeriaren Aurkako Plataformak antolatuta. Bertako kide Tania Siriany argi dauka gorrotoaren diskurtsoak uxatzeko instituzioek eta gizarteak zer egin dezaket.

Testua eta argazkiak: **Juanma Gallego**

**D**uela bost urte sortu zen Arrazakeriaren Aurkako Plataforma Gasteizen, eta bertan norbanakoak zein elkarteak batzen dira. Eredu asanblearioa oinarri, gorrotoaren diskurtsoari erantzun koordinatu bat eman nahi diote plataforman. Egitura horretako kidea da Tania Siriany (San Salvador, El Salvador, 1973). 19 urte daramatza gurean, eta ongi ezagutzen du hiriak arrazakeriaren arloan izan duen bilakaera. Feminismoa eta arrazakeriaren aurkako borrokak batera joatea ezinbestekotzat jotzen du Siriany, biak ala biak sistema beraren ondorio direla iritzita.

**Zerk eraman zaitu arrazakeriaren aurkako borrokan parte hartzera?**

Nire jaioterrian giza eskubideen defentsan aritu naiz, bereziki borroka feministan. Arrazakeriaren Aurkako Plataformako kidea izateaz gain, AMAR arrazakeriaren aurkako kolektibo feministan ari naiz. Egia esanda, gaztea nintzenetik feminista izan naizen arren, duela gutxi murgildu nintzen arrazakeriaren gaien. Erabateko kontzientzia 2015eko hauteskundeetan hartu nuen. Izan ere, hor hasi zen Javier Marotok hasitako olatu arrazista

hori. PPK gorrotoaren eta islamofobiaren diskurtsoa hartu zuen. Orduan, feminismoaz gain, arrazakeriaren aurkako borrokari heldu nion. Uste dudalako migratuok eta arrazializatuok gai horrekiko ahaldundu behar dugula, eta kontzientzia eskuratu. Plataforman jende autoktonoa ere badago, eta garrantzitsua da ulertzea hau ez ez dela soilik migratuen eta arrazializatuen kontu bat, gizarte osoarena baizik. Zentzu honetan, nabarmendu beharra dago 2015ean izan zen olatu arrazistarekin batera izan zela elkartasun olatu bat. Hiri bezala, erantzun bat artikulatu ahal izan genuen. Hori, neurri batean, Maroto alkatetzatik kentzeko egon zen negoziazio politikoan gauzatu zen.

**Beraz, etekin politikoak eskuratzeko Marotok erabilitako diskurtso hori bere kontra bihurtu zen?**

Bai, baina hori une konkretu horretan izan zen, Marotoren kontra eratu zen mugimendu soziopolitikoari esker, hain zuzen. Baina, orokorrean, gorrotoaren diskurtsoak etekin politiko asko ekartzen ditu. Hor daude, adibidez, VOX edo Ciudadanos. Eta hemen PPK ere beti jolastu du horrekin. Aurreko batean hedabide batean agertu zen Marotori aholkularitza eman zion lagun bati





egindako elkarrizketa: orain Leticia Comeroni aholkularitza ematen dion lagun bera da. Ez da kasualitatea: arrazakeria, xenofobia eta islamofobia haien diskurtsoaren ardatzetako bat dira.

### **Nola ikusten duzue VOX eta antzeko fenomenoaren agerpena?**

Nik gutxienez VOX edo Ciudadanos bezalako alderdiek Euskal Herrian ordezkari izan behar duten itxaropena daukat. Ez udaletan ezta gainerako instituzioetan ere. Dena dela, Gasteizen egon daitezkeen emaitzek kezkatzen naute. Bestalde, lortu behar dugu kalean babesa izan ez dezaten. Alderdi Popularrari dagokionez, hau kontu historikoa da. Jendea beldur da orain ultraeskuinaren agerpenaz; baina, nire ustez, PPK ere ultraeskuinaren diskurtsoak erabili ditu aspalditik. Beraz, ondo ezagutzen dugu dagoeneko zer den ultraeskuina.

### **Gorrotorearen aurkako bide honetan, zein da instituzioek egin behar duten lana?**

Arrazakeria instituzionala eta estrukturala da, eta arrazaren inguruan dauden diskurtso sozialak horretan oinarritzen dira. Instituzioek oinarritzko pisua dute gizartean; tartean, diskurtsoak zabaltzen dituztelako. Oroitzen naiz PP agintean zegoen garaian Diputazioak atera zuela guztiz islamofobia zen kartel bat. Instituzioei arrazakeriaren aurkako diskurtsoa eskatu behar zaie. Haien ardura da. Autobusetan ikusi ditugu etengabe egoera arrazistak, baina instituzioek ez dituzte kudeatzen. Ez du balio esatea autobus gidariak orokorrean pertsona arrazistak direla. Dena dela, guztiok gara, hein batean, arrazistak. Pentsamendu estruktura kolonial batean abiatzen da arrazakeria, eta pertsona guztiok dugu hori barneratuta. Denok, migratuok zein autoktonoak, hazi gara estruktura hori buruan sartuta. Saiatu behar dugu kulturen aniztasuna errespetatzen duen gizarte bat eraikitzen. Ez gara berdinak, baina saiatu behar dugu aniztasun hori berdintasun eza bihur ez dadin.

### **Eta zein izan behar du, zure ustez, hedabideen rola?**

Hori aipatzen duzunean, Gasteizen, El Correo datorkit burura. Gai asko modu arrazistan ari dira lantzen, etengabean. Etorकिन edo pertsona arrazializatuen argazkiak jartzen dituzte delituei edo segurtasun ezari buruz idazten dutenean, edo laguntzarik ez duten adin txikiko atzeritarren kasua nola jorratzen duten ere oso lazgarria da. Eta ez dira konturatzen –edo agian bai– horrekin gizartean gorrotorearen diskurtsoa hauspotzen ari direla.



Tania Sirianyren ustez, Gasteizen gauzak ez dira hobera joan.

## **"EZ DA KONTU BERRIA; PP-K ERE ULTRAESKUINAREN DISKURTSOA ERABILI DU ASPALDITIK"**

## **"INTEGRAZIO HITZA EZ DUT GUSTUKO: ASIMILAZIOA LITZATEKE. ANIZTASUNARI ERRESPETUA, BAI"**

**Lehen aipatu didazu hasieratik argi zeneukala borroka feministaren beharra, baina duela gutxira arte ez zinela inplikatu arrazakeriaren aurkako borrokan. Nola bateratzen dira bi borroka horiek?**

Nik zapalkuntza gehien jasotzen duten emakumeen alde dagoen feminismoan sinistu dut betidanik; ez feminismo hegemonikoan. Bat-batean konturatzen zara emakumeen kasuan arrazan oinarritutako zapalkuntza oinarritzkoa dela. Emakume beltzek kontaktu digute beraiei, batzuetan, txarrerako gehiago eragiten diela beltza izateak emakume izateak baino. Orduan konturatzen zara benetan feminismoa

emakumearen eskubideen aldeko borroka bada, arrazakeriaren aurkakoa izan behar dela. Audre Lordek dioen moduan, feminismoan ezin daiteke egon zapalkuntzen hierarkia bat, emakumeok ezin dugu aukeratu zein den une zehatz batean gehien zapaltzen gaituena. Horregatik uste dut feminismoak arrazakeriaren aurkako mugimendua ere izan behar duela, eta nahi dugu gainerako emakumeek ere hori ikustea. Bestetik, klase sozialaren gaia ere hor dago, eta funtsezkoa da. Lana eta lan eskubideak ez izatea, hori ere zapalkuntzaren parte ere bada: hots, kapitalismoak zuzenean zapaltzen nau.

#### **Eta etorkin ez diren emakumeek hori ikusten al dute?**

Gasteizko kide feministak beste zapalkuntza horiek aitortzeko prozesu batean gaude. Hau ibilbide bat da, eta nik neure bilakaera pertsonala jarri ohi dut adibidetzat. Pixkanaka mugimendu feminista konturatzen ari da badirela emakumeen kontrako beste zapalkuntza batzuk, aldarrikapen horiek ere mugimendu feministaren parte badirela, eta horiek bereganatu behar dituela, bere baitan mota guztietako emakumeak izan nahi baditu, bederen.

#### **Arrazagatik bazterketa sentitzen ez dugunok zer egin dezakegu?**

Lehenik eta behin, enpatia izan besteekiko. Eta, bigarrenik, onartzea guztiok buruan estruktura koloniala dugula. Kapitalismoaren oinarrietako bat da arrazakeria. Kapitalismoa Europan aro modernoa deitzen den horretan hedatu zen munduan zehar; baina Ameriketara, eta, oro har, kolonietara, ordukoa garai iluna izan zen. Esklabotza eta morrontza hor abiatu ziren. Pentsa, arimarik ere ez omen zuten indigenek! Europak kultura horiek txikitu zituen. Kontinenteko demokrazia beti hartu izan da eredutzat, baina nik buruan badut nirea dela hoberena, nola ikusiko ditut bada besteak? Gauzak egiteko beste moduak eta beste ezagutzak aitortzen ikasi behar dugu ere.

#### **Arrazakeriaren aurkako eguna izan da joan den astean.**

#### **Nolakoa izan da aurtengoa?**

Ea, beti daude hobeto daitezkeen kontuak: gizarteak plataformarekin bat egiten duen heinean, gero eta hobeto egin genezake, noski. Baina pozik gaude. Gasteizen hain manifestazio luzea egin dugun lehen urtea izan da aurtengoa. Trafikoa moztu dugu, eta Molinuevotik pasatzean bakarrik dauden adin txikikoak batu dira manifestaziora. Mugimendu feministako kideak ere egon dira. Oro har, gasteiztarren parte-hartzea ez da oso handia izan, eta askotan etorkinen elkarteek ere ez dute parte hartzen. Guk datozen urteetan parte

hartzeko deia egiten diegu, noski, hau borroka komuna da eta.

#### **Udalari dagokionez, Marotoren garaitik oraingo garaietara gauzak aldatu dira?**

Nik esango nuke gauzak ez direla hobetu.

Etorkinentzako zerbitzuak desagertu dira.

Adibidez, lehen bazegoen Norabide izeneko bulego bat, aholkularitza ematen zuena. Gizarte laguntzek ere txarrera jo dute. Etorkinak txiroen dauden taldeen artean daude. Agian ni ez naiz egokiena horri buruz hitz egiteko, baina nabari dut EAJ eta musulmanen arteko harremanak desberdinak direla, Marotok zituen harremanekin alderatuz. Tira, esango nuke Marotok batere harremanik ez zuela.

#### **Zer eskatzen diozue, bada, alkatetza eskuratzen duen pertsonari?**

Lehenik eta behin, zerbitzuak martxan jartzea.

Denok berdinak bagara, berriro etorkinentzako aholkularitza bat egon beharko litzateke. Eskoletan izena emateko orduan, adibidez, jendeak ez daki nora bideratu behar dituen seme-alabak. Eta ezaguna da dagoen segregazioa. Euskara etorkinengatik txarrera doala entzun da batzuetan, baina familiek askotan ere ez dakite nora iritsi diren. Estatu espainolaren barruan dagoen lurralde batera iritsi direla azaldu behar zaie etorri berriei, eta hiriaren ama-hizkuntza euskara dela. Askok ere ez dakite non bizi diren, eta hori Udalaren ardura da. Ni duela 15 urte hasi nintzen Euskaltegian, eta orain hainbat hilabetez bueltatu naiz. Baina euskara ikastea garestia da, ia-ia pribilegio bat. Nola lortuko dugu ba eskubide berdinak dituen gizarte bat, hizkuntza ere ez badugu partekatzen?

#### **Nola lantzen da etorkinen artean integrazioa?**

Ez zait gustatzen integrazio hitza; kultur asimilazioa litzateke hori. Aniztasunari errespetua eskatzen dut. Giza eskubideak printzipio unibertsalak dira, eta guztiok hori errespetatu behar dugu. Adibidez, LGTBI+ kolektiboaren eskubideak landu behar dira, baina ez soilik etorkinekin. Hemen ere homofobia eta transfobia handia dago, ez bereziki etorkinen artean. Pertsonak gara orokorrean, eta kultura batetik zein bestetik etorrita, aurreiritziak ditugu. Desberdinak gara, eta, horren gainean, bizikidetzara irazi behar dugu. Euskaldunak hori aitortzeko moduan zaudete, aspaldian zaudetelako hizkuntzaren aldeko borroka batean. Beste kulturei egindako aitortzatik hasi behar dugu: horrek euskal kulturari onura ekarri ahal dio. Eta nik ere euskal kulturatik ikasi nahi dut. ■■■

# Erregina



**IGOR SALAZAR**  
ZUZENBIDEAN DOKTOREGAIA

**O**na izaten da balantzea egitea gertaera garrantzitsu bat ospatu eta gero. Otsailaren 28tik martxoaren 3ra bitartean jokatu zen 2019ko Erreginaren Kopa Gasteizen. Asteburu bizi hartan Mendizorrotzako pabiloia egunero 4.500 lagunekin bete zen, eta hiria Araski klubaren koloreekin jantzi zen.

Askotan inor ohartu gabe gertatzen dira gure hiriak lortutako erronkak. Bistan da Euskadiko hiriburua horrelako kirol ekitaldi handiak antolatzeko gai dela, baina nabarmentzekoa da duela hilabete bat ospatu zela emakumezkoen saskibaloitari hazten lagunduko dion Kopa. Hiriak txapelketa honen aldeko apustua egin zuen, eta gasteiztarrek emakumezkoen kirolari babes eman zioten.

Kirol ekitaldien antolakuntzan inbertitzean, ezin da unean uneko eragin zehatzean (askotan ekonomikoan) bakarrik pentsatu behar, baizik eta kirol-politika integral baten gailurra izan behar duten ekitaldi horietan. Egia da Gasteiz hiri txikia dela bere handitasunean, baina esperientzia handia hartu du azken urteotan arrakasta handia eta eragin soziala ekarri duten kirol ekitaldiak antolatzen, eta, batez ere, emakumezkoen kirola sustatzen.

Kirola beste bide bat da berdintasunean oinarritutako gizartea eta hiria eraikitzeko. Horregatik, Gasteiz kirolaren sinonimoa da, baita berdintasunarena eta emakumeen kirolaren sostenguarena ere, emakume kirolariek laguntza, babes eta aukera berak izan ditzaten. Beraz, funtsezkoa da guztiontzako kirola sustatzea, eta egin den lana zoriondu behar da. Inoizko Koparik onena izan da, eta Gasteiz izan da erregina. ■■■

**ASKOTAN INOR  
OHARTU GABE  
GERATZEN DIRA GURE  
HIRIAK LORTUTAKO  
ERRONKAK**



# Irakur



**IRATI MARAÑON**  
ITZULTZAILEA

**G**urasoen etxeko egongelako apalategia, eta han hiru liburu: Gorkiren *La madre*, *Cien años de soledad* eta Reinhold Messner-en *Everest sin oxígeno*. Horixe da abiapuntua, horiexek dira haurtzaroko lehendabiziko oroitzapen literarioak. Orduko hartan, dena den, Midas erregearen istorioa eta *Patxi errementari* ziren nire kuttunenak. Zenbat aldiz ez ote zizkidaten irakurri ipuin haiek? Eta gero etorriko ziren Momo eta denbora lapurtzen ibiltzen ziren gizon grisak, eta Txarlie eta txokolatzeko fabrika zoragarri hura eta Patxi Zubizarretaren *Gutun harrigarri bat...*

Institutuan hasi nintzenerako irakurle amorratua nintzen, baina gehienbat gaztelaniaz irakurtzen nuen. Halakoren batean, ordea, ez dakit nork (eta nor izan zen jakitea gustatuko litzaidake, eskerrak emateko) *Babilonia* irakurtzeko esan zidan, eta orduantxe ireki zen beste ate garrantzitsu bat: euskal literaturarena, alegia. Eta haren ondotik etorriko ziren *Narrazioak*, *Obabakoak*, *Otto Pette...* Eta kuttunen zerrendan sartu nituen, Ignatius Reillyren xeblebrekeriekin eta Montecristoko kondearen abenturekin batera, besteak beste.

Dena den, ez al duzue orain arte kontatukoan hutsunerik nabaritzen? Non dira emakumezko idazleak? Nire irakurle-ibilbidea gizonez josita zegoela jabetu nintzen, eta hori nolabait konpontzearen Feminist agenda euskal literaturan zeritzon irakurle-talde batean eman nuen izena. Orain bost urte sortu zen eta Gasteizko hainbat gizarte-etxetatik igaro eta gero, Etxanobe dorretxeko Emakumeen Etxean daukagu orain aterpe. Hitzordua: hileko lehenengo asteazkenean, arratsaldeko zazpietatik bederatzietara. Eta protagonistak: emakume idazleak, jatorrian euskaraz idazten dutenak edo haien obra euskarara itzulita dutenak. Eta talde horri esker ezagutu ditut, besteak beste, Virginia Woolf, Alice Munro, Doris Lessing, Toni Morrison... eta horiek guztiek euskaraz egiten didate, gainera.

Nik ez dut izan gidaririk, ez dut izan literaturaren zirrikitueta akuilu lana egin didan inor, baina ziurrenik jende askok eskertuko luke halako figura bat, halako laguntzaile bat, eta batez ere haurtzaro/nerabezaroan. Literaturara zaletuko dituen norbaitez ari naiz. Baina ofizialki horrelakorik sortzen ez den bitartean, ingurukoei kaparrada ematen jarraituko dut eta zer irakurri beharko luketen gomendatzen. ■■■

**TALDE HORRI ESKER  
EZAGUTU DITUT  
VIRGINIA WOOLF, ALICE  
MUNRO, DORIS  
LESSING...**

## SAREAN

@ESTITXUUGARTE

### #Heroina

**H**ogeitabost urte inguru igaro dira Euskal Herrian izan zen heroinaren izurriteak goia jo zuenetik. ETB1en, Ur Handitan saioan, biktimen testigantzak bildu dituzte. Bizirik irten zirenengana zein bidean gelditutakoen familiengana jo dute. Beste behin, sareko lagunak arreta eta iruzkin andana bildu ditu Xabier Madariagak aurkezten duen saioak. ■



**PINTXAS**  
@ameraune

Gaurko Ur Handitan izugarria bezain beharrezkoa, berriro xiringak agertzen hasi diren garaiotan. #heroina



**ENE NAZ**  
@Eneritxi

Gaurko Ur Handitan saioa interesgarria. EHN heroinak eragindako kalteak. Duela bi urte hil zan baten berbak jatortaz gogora: "Nire arreba eskopetaz apuntatu nuen dirua emateko", "nire bizitza pikutara bidali nuen".



**AMAIA**  
@zuribostnerisei

"Hasi ginen askatasunetik eta amaitu genuen preso izaten". Drogak eta adikzioak. Aisialdi eredu berri bat landu behar dugu herrigintzatik. Eta azkar gainera. @urhanditan



**AITZI**  
@aitzi\_aitzi

Amen korajea. Etxetik bidali eta berak topatuko du bidea. #zegogorra #urhanditan



**ZORION ORTIGOSA**  
@zortigosa

Ederra bezain gogorra gaur ere Ur Handitan. Eta ze gutxi hitz egiten den gaur egungo droga kontsumoaz Euskal Herrian. #Burujabe #Burugabe

**M** Mencia  
Optika

**150** urte  
zure ondoan

[www.menciaoptika.eus](http://www.menciaoptika.eus)



## Ura arduraz kontsumitzeko deia

Gasteizek sentsibilizazio ekimen deigarriarekin egin du bat martxoaren 22an ospatu den Uraren Mundu Egunarekin. Amvisa uraren udal agentziak 200 litroko 192 ur bidoi jarri ditu Floridako ibilbidean, gasteiztar bakoitzaren urteko kontsumoa irudikatzeko. Datuen arabera, herritar bakoitzak etxean 105,5 litro ur erabiltzen ditu egunean; hain justu ere, 38.000 litro urtean. Bidoi bat bi eguneko eta 192 bidoi urtean. Kontsumitutako ur kopuruaz ohartarazi eta txorrotaren erabilera arduratsua eskatu zuen modu horretan Udalak.

**Argazkia: Gasteizko Udala. ■■■**



**Bidali zure argazkiak testu labur batekin: [erredakzioa@alea.eus](mailto:erredakzioa@alea.eus)**





Hilabete batzuk baino ez dira falta hauteskundeetarako. UNSPLASH

# Hauteskundeetan lehiatuko direnak

Abiatu dira dagoeneko bidean dauden hauteskundeetarako prestaketak. Ohi bezala, alderdi gehienak azken unera arte ibili dira zerrendak osatzeko izenen dantzarekin. Hona hemen nagusienak.

## **JUANMA GALLEGRO** GASTEIZ

Gutxiago falta da apirilaren 28an eta maiatzaren 26an izango diren hauteskunde hitzordu etarako, eta alderdi gehienek zerrendak osatu dituzte dagoeneko.

Alderdi Popularrari dagokionez, aspalditik ezagutzen da Leticia Comeron izango dela Gasteizetarako alkategaia. Hiriburuko alkate ohi Javier Maroto izango da Espainiako Kongresurako zerrendaburua. Ciudadanos alderdiarekin akordioa egitearen alde

azaldu da Maroto, eta mezu berdina bideratu du Iñaki Oiarzabalek. Batzar Nagusietarako zein Senaturako, bietan ala bietan doa Oiarzabal lehen postuan.

Bikoizketa hori kritikatu du egungo diputatu nagusi eta Batzar Nagusietarako EAJren hautagai Ramiro Gonzalezek. Alderdi jeltzaleak Mikel Legarda aukeratu du berriro Kongresurako lehen hautagaitzat, eta egungo alkate Gorka Urارانek Gasteizetarako hautagaitza errepikatuko du.

PSEri dagokionez, ez dago azken orduko sorpresarik. Egungo turismo diputatu Cristina Gonzalezek gidatuko du Batzar Nagusietarako zerrenda, eta Maider Etxebarría izango da Gasteizetarako alkategaia. Kongresuan, berriz, Espainiako Hezkuntza ministro Isabel Celaa doa lehen postuan.

## **Historikoak**

EH Bilduk Iñaki Ruiz de Pinedo abertzale historikoa aukeratu du Espainiako Kongresurako zerrendaburu. Bigarren eta hirugarren postuetan doaz Maddi Isasi eta Andoni Txasko. Gasteizi dagokionez, Miren Larrion berretsi dute asteburuan zerrendaburu. Sidalava elkartearen aritutako Rocio Vitero joango da bigarren postuan, independente modura. Ruiz de Pinedo ez da EH Bilduren zerrendetan izan den historikoen mugimendu bakarra. Egungo zinegotzi Antxon Belakortu Batzar Nagusietarako bosgarren postuan joango da. Zinegotzi izandako Itziar Amestoy izango da bigarrena eta Kike Fernandez de Pinedo, berriz, zerrendaburua.

Ahal Dugu, Ezker Anitza eta Equo batera joango dira hauteskunde guztietan, Unidas Podemos markaren izenpean. Equo alderdiko Juantxo Lopez de Uralde izango da Espainiako Kongresurako zerrendaburua. Ahal Duguko Fernando Lopez Castillo izango da Gasteizko Udalerako zerrendaburua, eta bigarren postuan alderdi bereko Gemma Zubiaurre joango da. Egungo Irabaziko zinegotzi Oscar Fernandez hirugarren postuan joango da zerrenda bateratuetan. 2015eko hauteskundeetan Ahal Dugu eta Irabazi (IU+Equo) bakoitza bere kabuz joan zen. Batzar Nagusietarako, berriz, Arantxa Abecia da lehen hautagaia.



Kanpainaren aurkezpenean eragile ugari izan dira. AIARALDEA.EUS

# Euskara, agenda politikora

Udal-hauteskundeetan hizkuntza eskubideen urraketak salatu eta alderdiei konpromiso errealak eskatzeko kanpaina martxan jarri du Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak.

## E.UGARTE LZ. DE ARKAUTE LAUDIO

Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak euskara udal-hauteskunde kanpainen sartzeko eta Aiaraldeko instituzioetan hizkuntza-eskubideak errespetatzeko aldarrikapena agenda politikoan sartzeko kanpaina aurkeztu du. #Ez-WeCant traola baliatuko dute hizkuntz eskubideen urraketan inguruko salaketak sare sozialetan zabaltzeko, eta euskarri ikusgarriak kaleratu dituzte leloarekin batera.

Azaldu dutenez, udal-hauteskundeetara hautagaitzak eta hauteskunde-programak aurkeztuko dituzten alderdi guztiekin jarri dira harremanetan azken egunetan, eta bilerak egin dituzte. Hiru eskaera nagusi egin dizkie Kontseiluak Aiaraldea osatzen duten bederatzi udalerrietan udal-hauteskundeetara aurkeztuko diren

alderdi politikoei: hautagaiak euskaradunakizatea edolegealdian euskara ikasteko konpromisoa hartzea, hauteskunde-kanpaina euskaraz ere garatzea eta programa politikoetan hamaika neurri

zehatz hartzea, euskararen normalizaziora begira.

Eskaeren berri jasota, hilabete epealdia eman zaie alderdi politikoei hartuko dituzten konpromisoak Kontseiluari jakinarazteko. Erantzunak jasotzean, Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak konpromiso horien aitortza publikoa egingo du, "modu positiboan".

## Sinadura bilketa

Horrez gain, sinadura bilketa abiatu dute, hizkuntza eskubideen urraketak salatu eta alderdiak ares-tian aipatutako konpromisoak hartzera bultzatzeko. Horretarako *Change.org* plataforman sinadura bilketa zabalik dago.

Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua 2016an jaio zen, euskararen normalizazioaren alde egin nahi zuten eskualdeko entitateen bilgune bezala. Bilgune honetan eskualde osoko eta esparru ezberdineko 42 entitate dira kide; arlo sozioekonomikoko eragileak, ikastetxeak, kultur taldeak eta kirol mundukoak. Hizkuntzaren normalizazioan ekarpen aktibo bat egin nahi duten entitateen bilgunea da beraz.

## Confecciones Pinedo, S.L.

*Euskal Jantziak*

San Antonio, 11  
Heraclio Fournier, 15  
GASTEIZ



[www.confecconespinedo.com](http://www.confecconespinedo.com)



Adinekoen egoitzen egoera azaldu dute sindikatuek. MIKEL ARRAZOLA-IREKIA

# Zahar etxeetan, maila ezberdinak

Arabian, adinekoen egoitza pribatuen erabilera murrizteko eta martxan daudenen gaineko kontrola handitzeko eskatu dute CCOO, ELA, LAB eta UGT sindikatuek, Batzar Nagusietan.

## ESTITXU UGARTE LZ. DE ARKAUTE

GASTEIZ

ELA sindikatuko Nuria Vallejosek, LABeko Nuria Lopez de Uraldek, UGTko Marta Pinedak eta CCOOko Helena Herranek Arabako Batzar Nagusietan salatu dute herrialdean lehen, bigarren eta hirugarren mailako zahar etxeak daudela, eta adineko guztiek ez dutela kalitatezko arreta jasotzen. "Diskriminazio larria" dagoela salatu dute.

Horrekin lotuta, lurraldean dauden egoitza pribatuen gaineko kontrol zorrotza exijitu dute, arretaren gutxieneko baldintzak bermatzeko, eta familiak egoitza

pribatuetara bideratzeko politikari ere muga jartzeko eskatu dute.

Arbuiatu dute Arabako familia bati egoitza bat edo beste bat egokitzen zaion momentutik diskriminazioa sortzen dutela administrazioek. Euren esanetan, zerbitzuaren kalitatea soilik egoitza publikoetan eta itunduetan bermatzen da; egoitza pribatuetan, ordea, "ez dago kontrolik". Alta, azken datuen arabera, Diputazioak adinekoen %43 egoitza pribatuetara bideratzen ditu, prestazio ekonomikoen bitartez. "Eskandalagarria da", esan dute langileek.

## Plaza publiko gehiago

Egoerari aurre egiteko, plaza publiko gehiago sortzea eta pribatuen erabilera mugatzea galdegin dute, baita egun dauden egoitzen kontrolak gogortzea ere. "Diputazioak, urtero, etxebizitza komunitarioen lizentziak ematen ditu, baina ez zaio komeni ikuskapenak egitea, asko eta asko itxi beharko zituelako. Non egongo ziren orduan adineko horiek?", galdetu dute sindikatuek.

Adinekoek ematen zaion zerbitzua kalitatezkoa eta berdintasunezkoa izan behar dela nabarmendu dute langileek, eta horretarako ere lan baldintzak hobetu beharra dagoela. Gaur egun ezarzen diren "ratio altuak eta gehiegizko lan zamak" nabarmendu dituzte.

## Erabiltzaileak, pozik

Gizarte Zerbitzuen Foru Erakundearen baliabideen inguruan 560 erabiltzailerik egindako asebetetze inkesta batek adierazi du hamar erabiltzaitetik bederatzi gustura daudela GOFEk ematen dituen zerbitzuekin eta prestazioekin; are gehiago, erabiltzaileen %95,5ak gomendatuko litzuke.

Langileen %33ri egin dieten inkestaren emaitzak ere aurkeztu dituzte. Erantzun dioten pertsonen %52 gustura dago bere lanpostuan; %30, aldiz, kontra agertu da.





Izan  
zaitez  
ALEAkide



[alea.eus/harpidetzak](http://alea.eus/harpidetzak)

## ESANAK



**YOLANDA MOSQUERA**  
IRUDIGILEA

**"Saihetsezina da niretzat tropela koloredun suge baten moduan ikustea"**



**ANDONI TXASKO**  
MARTXOAK 3 ELKARTEA

**"Martin Villa aukeratu dugu inpunitatearen aurpegirik ezagunena delako"**



**LEIRE DIAZ DE GEREÑU**  
EHUKO HIZKUNTZALARITZA IRAKASLEA

**"Eskola eleaniztunak hizkuntza gutxituekiko arreta berezia eskatzen du"**

## ZENBAKITAN

### Euroak

#### **Diputazioak eta Guardiako Udalak**

herria zeharkatzen duen A-124 errepidean trafikoa moteltzeko neurriak hartu dituzte, eta ikusgaitasuna hobetzeko seinaleak eta argiztapena berritu dituzte. Neurriak hartuko dira trafikoa moteltzeko, eta seinale eta argi gehiago jarriko dira zeharbideko hiru tokitan: Ertzain etxearen, gasolindegia eta ehortzetxe berriaren inguruan; igogailuaren ondoko zebraidea dagoen lekuan, eta A-124 errepidearen eta Bilarrera doan A-3228 errepidearen arteko bidegurutzean. Neurri horiek gauzatzeko 40.000 euroko inbertsioa egingo da.

**40.000**

**10**

### Urteak

**Bibat museoak** hamargarren urteurrena ospatu du hilabete honetan. Hala, Arkeologia eta Fournier Karta Museoaren hamar urteko ibilbidea nabarmentzeko hainbat hitzaldi, bisita, lantegi eta kontzertu antolatu dituzte. Hurrengo asteetan, Arabak Paleolitoan izan duen garapenari buruzko erakusketa ikusgai dago. Halaber, Iruña Veleiako *thoracatos* izeneko erromatar garaiko militarren irudikapen eskultoriko bat ere erakusten du egunotan Bibat museoak.

**123**

### Etxebizitzak

**Olarizu** auzoan etxebizitza zaharrak eraisteko plana onartu du Gasteizko Udalak. Guztira, 123 etxe dira Olarizuko etorbidean daudenak. Gorka Urاران alkateak adierazi duenez, azpiegitura arazo larriak dituzte etxebizitzek, eta ekonomikoki merkeagoa da zaharrak eraitsi eta berri batzuk eraikitzea. Ensanche 21 Zabalgunea da blokearen jabea, banketxe baten eskuetan zegoen azken etxebizitza erosi eta gero. Egun, okupatuta daude etxebizitza horietako batzuk.

## Tren sozialaren aldeko manifestazioa babesteko mozioak

Lautadako eta Arabako Haraneko AHTrik Ez! plataformek udaletan eta kontzejuetan mozioak eta eskaerak erregistratu dituzte, tokiko erakundeek tren sozial baten alde antolatu duten manifestazioa babes dezaten; maiatzaren 18an izango da, Gasteizen. Halaber, harremanetan jarri dira herrialdeko hainbat eragile sozial, sindikal eta politiko.



Larunbatean mendi martxa egin zuten Zaldiaranera. AHT-RIK EZ ARABA



EAJren planaren aurkezpena. EAJ-PNV

## Auditoriumaren proiektua berreskuratu du EAJk

Gasteizen auditorium bat egiteko asmoa, berriz ere, mahai gainean jarri du EAJk. Aurreko alkateen proiektuek –Alfonso Alonsok eta Patxi Lazkozek aurkeztu zituzten– kale egin eta gero, ikuskizun handietarako antzoki baten egitasmoa aurkeztu dute Gorka Urtaran alkateak eta Ramiro Gonzalez ahal-dun nagusiak, hauteskunde aurreko ekitaldi batean.

## Urtegiko ibilbide berdea egokituko dute, uholdeei aurre egiteko

Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Sailak Uribarri Ganboako urtegiko Ibilbide Berdea egokituko du, uholdeak gertatzen direnean tarte batzuetan izan ohi diren arazoak ekidin ahal izateko. 50.000 euroko inbertsioa egingo du Arabako Aldundiak, Marietako eremuan eta Urizar herriaren inguruan, urak eragin ohi dituen arazoak konpontzeko.

## Antoñana eta Fresneda dira Arabako herririk gozoenak

Lurraldeko maparen bi muturretan daude erlezainik onenak, Kanpezun eta Gaubean hain zuzen ere, bi udalerrri horietako ez-tiek irabazi baitute Arabako Apial elkartearen XXIV. txapelketa. Fernando Diaz Moralesek eraman du lehen saria Antoñana herrira, eta Begoña Diaz de la Presak eta Samuel Etxebarriak hirugarrena, Fresnedara.



Arabako XXIV. Eztiaren Txapelketaren irabazleak, Nekazaritza diputatuarekin. ALEA



Hamaika saltsa

# Bidean jarraitzeko helmuga

BERTSOLARITZA

L arunbat honetan bukatuko da Arabako Bertsolari Txapelketaren 2019ko edizioa, Principal Antzokiko finalean. Otsailaren hasieran hasitako bidearen helmuga izango da martxoaren 30ekoa, beraz. Baina helmugak ez dakar amaierarik, kasu honetan. Bideak aurrera jarraituko du, eta horren lekuko dira Principaleko oholtza zapalduko duten aurpegi berriak.

Peru Abarrategi aramaioarrak eta Aroa Arrizubieta gasteiztarrak lehenengo aldiz kantatuko dute Arabako Bertsolari Txapelketaren finalean. Gaztetu egin da finala, eta berrikuntza dakar horrek. Hala ere, ez da sorpresa izugarria ere izan: 2018ko udazkenean abiatutako sailkapen fasean hasi, eta

**PERU ABARRATEGIK  
ETA AROA  
ARRIZUBIETAK LEHEN  
ALDIZ KANTATUKO  
DUTE FINALEAN**

**ORAIN ARTEKO SAIOEK  
BETERANOEN TENPLEA  
ETA BERTSOLARI  
BERRIEN AUSARDIA  
ERAKUTSI DUTE**

ondorengo final-laurden eta finalaurreko saioetan nabarmena izan da parte-hartzaile gazteen eta berrien presentzia. Saio biziak izan dira, jende aldetik erantzun ona izan dutenak (nabarmentzeko modukoak izan dira Araiako, Aramaioko eta Legutioko saioetan izandako betekadak), eta bertsolari beteranoen tenplea eta parte-hartzaile berrien ausardia erakutsi dutenak.

Abarrategi eta Arrizubietarekin batera, txapelketan kantatzea zer den

ondo dakiten beste lau izango ditugu finaleko tabladuan: Manex Agirre eta Xabi Igoa aramaioarrak, Iñaki Viñaspre abetxukoarra eta 2017ko edizioko txapelduna, Oihane Perea zalduondoarra. Marta Ugartek eta Oier Suarezek egingo dituzte aurkezle-lanak.

Orain ia bi hilabete, txapelketaren aurkezpena egin zen egunean, Bernardo Atxagak aldarrikapen bat egin zuen: euskararen sinbolo gisa, txantxangorria baino, egokiagoa izango zela araba-zozoa, adibidez. Araba-zozoak



ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA

MUSIKAZALEA



Oihane Perea, Iñaki Viñaspre, Aroa Arrizubieta, Peru Abarrategi, Manex Agirre eta Xabi Igoa bertsolariak.

taldean ibiltzeko duen joerarekin lotzen zuen egokitasun hori, bere izaera kolektiboarekin. Eta, era berean, adierazi zuen arabar bertso-mugimenduak bete-betean egiten duela bat izaera horrekin. Bada, larunbatekoa izango da talde-izaera horren erakusgarri garbientako bat. 17:30ean hasiko da saioa, eta iluntzean jakingo dugu 2019ko txapeliduna zein den. Tarte horretan, bertsoak egin dezala bere bidea, eta goza dezatela bertsozale guztiek, bidelagun gisara. ■



ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA



Hirugarren final laudena Aramaion erabaki zuten. ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA



**BEÑAT GARAIO**  
BERTSOZALEA

## Zorte on seirei

**A**maitzera doa 2019ko Arabako Bertso Txapelketa, eta horrekin batera iritsiko da arabar bertsozale askok agendan aspaldi gordeta genuen data: martxoak 30eko finala. Aurten, eta nire bertso-eskolakoek bultzatuta (#goramorralla), "bertsolari" gisa hartu dut parte estraineko, eta Elkartetik nire bizipenak partekatzeko eskatu didate.

Lehenik eta behin, saioak jarraitu dituen bertsozaleari nire eskerrik beroenak eman nahiko nizkioke. Ez dakizue nola sentiarazi nauzuen (gaituzuen) saio bakoitzean zehar eta ondoren. Publikoarekin zorretan nago eta hemen promesa bat: beste txapelketarik badago, urduritasunak eta esperientzia faltak erakusten utzi ez didana eman nahi dizuet bueltan.

Bigarrenik, txapelketa barrutik ezagutzeko aukera izan dugunok adiskide-talde bat ezagutzeko aukera ere izan dugu, baita beste mundu berri bat ere. Honegatik bakarrik ere merezi zuen sufrikarioak.

Hirugarrenik, bertsolarien barruan ere oso babestuak sentitu gara hasiberriak. Aroa, Aitor eta Unaik jarraipen itzela eman die gazteagotan hasi zuten ibilbide sendo horri; eta Manu eta biok, berriz, berandu deskubritu genuen pasio hau are gureago egin ahal izan dugu. Bide batez, Serapio, zure aipamenek oraindik ere jarraitzen dute.

Esan bezala, larunbatean arabar bertsozaleon eguna da. Sei bertsolari fin eta bizi, eta publikoan ehundaka lagun giroa berotzeko eta "bertsoekin berotzeko" prest. Urtean zehar saio paregabe ugari daude Araban, baina oraingo honetan finalaz gozatzeko txanda da. Zorte on seirei, ederki egingo duzue. ■

# Trebiñun du ALEAk lekukoa

Apirilaren 9an, 22:05ean, hartuko du lekukoa ALEA aldizkariak; Frankutik Trebiñurako bidean, 21. Korrikaren erdialdean. Gasteizen, berriz, apirilaren 14an, GEU eta Oihanederrekin batera arituko da.

## E.UGARTE LZ. DE ARKAUTE FRANKU

Frankutik Trebiñurako bidean, *Junta de Castilla y Leon Km 10* dioen seinale zuri-laranja hartuko du ALEAk 21. Korrikako lekukoa. Apirilaren 9an, gaueko 22:05ean izango da. Egun batzuk beranduago, Gasteizen, GEU Elkarteko eta Oihaneder Euskararen Etxeko lagunekin batera, bigarrenez izango da ALEA Korrikan.

Hain zuzen, euskararen aldeko lasterketaren erdialdea markatzen duen 1280. kilometroa korritzeko hautua egin dute ALEAko lagunek. "ALEA, Araba mailako proiektua da, eta herrialde osoarekiko dugun konpromisoa irudikatzeko polita iruditzen zitzaigun Trebiñun korritzea gure aurtengo kilometroa" adierazi du Aritz Mtz. de Luna zuzendariak. Askartza herriko Trebiñu sagardotegiko lagunak partetik jasoko dute lekukoa, eta Trebiñuko Batzar Administratiboko *Luciri* pasako diote, herrigunean sartzeko aldapa pikoa igaro eta gero.

### 21:45ean da hitzordua

Aurtengo edizioan, Mikel Arribas Trebiñuko euskaltzaleari "lapurtu" dio kilometroa ALEAk, eta Arribasekin eta animatzen diren ALEA-kide guztiekin batera egingo du kilometroa Arabako euskarazko hedabideak. Hitzordua 21:45ean da, Askartza eta Trebiñu herrien artean



Mikel Arribas, ALEA-ekin batera egingo duen kilometroaren hasierako seinalean. PHOT.OK

## "ARABA OSOAREKIKO DUGUN KONPROMISOA IRUDIKATZEKO TREBIÑUN EGINGO DUGU KORRIKA"

ARITZ MTZ. DE LUNA

dauden nekazaritza pabiloietan. "Trebiñuko hizkuntza zaharraren alde eta euskarazko kazetaritzaren alde, gurekin batera kilometro bat egitera animatu nahi ditugu arabar guztiak", esan dute ALEAko lagunek.

Hamabigarrenez igaroko da Korrika Trebiñutik, eta aurren, 25 kilometro egingo ditu bertan. Arribasekin azaldu duenez, urrats handia egin zuten trebiñarrek duela zortzi urte, euskararen

aldeko lasterketa Trebiñutik abiatu zenean. "Ahaztezina" da une hori militante euskaltzalearentzat, alabarekin batera. Gutxisolo elkartearen izenean lehen kilometroa egin zuelako: "Lan eskerga egin genuen, baina pena merezi izan zuten. Errepikatuko nuke". Gogoan ditu ere hasierako edizioetan gaituriko behar izan zituzten trabak, Guardia Zibilak kilometroak markatzen dituzten kartelak kendu zituenean, esate baterako. Urte luzez, Uda eta Gutxisolo elkarrekin egindako lana azpimarratu du Arribasekin. Egun, ordea, elkarrekin desagertu ondoren, "lan taldeak antolatzen ditugu, deialdien inguruan". Hala, dozena bat lagun daude lan taldean eta beste 50 laguntzeko prest. ■





# Milazangok euskarari bultzada emango!



# Ganekogortako begiralea

GURE BAZTERRAK



## Okondo

**Kuadrilla:** Aiaraldea.

**Udalerrria:** Okondo.

**Biztanleak:** 1.181 (2018ko Eustaten datuen arabera).

**Bitxikeria:** Kondaira batek dio Atxondoko haritzaren inguruan erditzera joaten zirela emakumeak, umeen osasuna bermatzeko.

**ARGAZKIA:** OKONDOKO UDALA

**TESTUA:** ESTITXU UGARTE LZ. DE ARKAUTE

Irabien, Villachica, San Roman, Ugalde, Jandiola eta Zudibiarte auzoek osatzen dute Okondo. Bizkaiarekin egiten du muga udalerrriak, eta, bertan, nabarmen-tzekoa da Ganekogorta mendia, ingurune osoko gailurrik altuena baita (999m), eta mendiko punturik garaienean Araba eta Bizkaia arteko muga kokatzen da. Bizkaian zeuden bost "deiadar-mendietako" bat da; beraietatik egiten zuten Gernikako Bartzarrerako deia, adar bat joz. Gainera, bertako lurretan gordeta dago historiaurreko kultura ondare aberatsa.

Ingurune ezin ederrago batean kokatuta dago Okondo, eta, Izalde errekarri jarraituz, begiratoki natural zoragarriak aurkitu ditzakegu, eta ingurune naturalaz gozatzeko ibilbide ugari egiteko aukera dago.

Nekazaritza, abeltzaintza eta mendien ustiaketa dira jarduerak

ekonomiko garrantzitsuenak; nahiz eta azken hamarkadetan, enpresa txikiek eta ertainek ere garrantzia hartu duten herriko garapen ekonomikoan. Gainera, inguruko langile askok Kadagua eta Ibaizabal haranetako industrialdeetara jotzen du lanera.

Erljio-arteari dagokionez, XVIII. mendeko Unzako Andre Mariaren

parrokia neoklasikoa gailentzen da, eta handik gertu dago San Bartolome ermita. Halaber, erretaula neoklasiko ederra duen San Prudentzioren eta San Estebanen omenezko ermita dago, baita Otaolako San Sebastian basiliza ere. Azken horrek kanpai bat dauka sarreran eta, kondairen arabera, ekaitzak uxatzen ditu bere soinuarekin.

Arkitektura zibil aberatsa gorde du Okondok: XV. mendeko Gaztiartu dorretxea, mende bereko Zudibiarte dorrea, La Cuadra jauregia, Puente jauregia, Mendieta jauregia eta Ugarte etxea dira, besteak beste, udalerrian aurkituko ditugun jauregi barrokoak eta landa-etxeak.

Jai ugari egiten dituzte Okondon, baina herriko festa nagusiak abuztuaren 24an ospatzen dituzte. Gainera, inguruko herrietako jende andana erakartzen duen baserritarren azoka bat egiten dute martxoko hirugarren igandean.



## ZOZKETAK

PARTE HARTU [www.alea.eus/zozetak](http://www.alea.eus/zozetak)



### Zinemarako sarrerak Florida zineman

Florida zineman, edozein pelikula ikusteko bi sarrera bikoitz zozkatzen ditu ALEAk. Parte hartu apirilaren 3a baino lehen. Apirilaren 5eko ALEAn publikatuko ditugu irabazleen izenak.

#### Irabazleak:

**Bertso finalerako sarrerak:** Joseba Fernandez de Gorostiza

**Askabide klinikan 6D ekografia:** Josune Uriarte

**Huntza + Ebri Knight kontzertua:** Susana Domingez eta eta Ane Urkiola

## POSTONTZIA

BIDALI ZURE MEZUA: [www.alea.eus/zorionagurrak](http://www.alea.eus/zorionagurrak)



### Idoia Martinez de Lahidalga Gasteiz

Zorionak Ido!!! Zelako poztasuna guretzat zure eguna zurekin gozatzea, ta are poztasun handiagoa beste urte bat zure ondoan bizitzea!!! Zure presentzia eta barnean duzun jaia dira guretzat bizi poza, eta sartzen zaren hamarkada berri honetan ere, iraun dezala gure artean horrebeste maite dugun zure xarmak!!! Gozatu zure egunaz eta urte askotarako maiti.



Babestu Arabako euskarazko kazetaritza, eta jaso ALEA astero zure etxean (55 euro urtean).

[alea.eus/harpidetzak](http://alea.eus/harpidetzak)



Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak ARABAKO ALEAren fitxategi batean sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena kudeatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: [harpidetza@alea.eus](mailto:harpidetza@alea.eus)



# AGENDA

Martxoaren 29tik apirilaren 4ra

## Euskararen agenda

### MUSIKA

#### MURGIA Izaki Gardenak

Trigger taldearekin batera. Korrika Kultureleko ekitaldien artean.  
*Ostirala 29, 22:00etan, gaztetxean.*

#### GASTEIZ Irune Goñi

Kontzertu akustikoa.  
*Osteguna 4, 19:00etan, Aldabe gizarte etxean.*

### HAURRAK

#### LEGUTIO 'Kalean otso, etxean uso'

Patata Tropikala taldearen eskutik.  
*Ostirala 29, 18:30ean, kultur etxean.*

#### GASTEIZ 'Ortzadarrekin jolasean'

Koloretako piezekin, ortzadarra osatuko dute. 2-3 urte bitartean.  
*Ostirala 29, 18:30ean, Zabalganako gizarte etxean.*

#### GASTEIZ 'Non da elefante gorria?'

Ipuina, Oihana Safaritarren eskutik. 4-8 urte bitartean.  
*Larunbata 30, 12:00etan, Ibaiondoko gizarte etxean.*

### BERTSOLARITZA

#### GASTEIZ Arabako Bertsolari Txapelketa

Finala. Oihane Perea, Manex Agirre, Iñaki Viñaspre, Aroa Arrizubieta, Xabi Igoa eta Peru Abarrategi bertsolariekin.  
*Larunbata 30, 17:30ean, Principal antzokian.*



AMORANTE

#### LAUDIO Udaberri jaia

Aiaraldea Ekintzen Faktoriak antolatuta, Udaberri Jaia ospatuko dute larunbatean. Amurrioko Ilargia taldearen kontzertu akustikoarekin hasiko da, umeentzako tailer eta jolasak ostean, eta Amoranteren kontzertuarekin amaituko da.  
*Larunbata 30, 16:00etatik aurrera, Lamuza parkeko Kasinoan.*

#### BAXAURI Kantu afaria

Felipe Zelaieta eta Asier Otamendirekin.  
*Larunbata 30, 21:00etan.*

#### GASTEIZ 'Enkarguz' emanaldi berezia

Xabier Zabala eta Andoni Egañarekin.  
*Igandea 31, 17:00etan, Oihaneder Euskararen Etxean.*

### BESTELAKOAK

#### AMURRIO 'Korrika kamixeta baten bidaia'

Koldo Urkixorekin.  
*Asteartea 2, 10:30ean, euskaltegian.*

#### LAUDIO 'Gure oroitzapenak'

Joseba Sarrionandiaren obran oinarritutako film kolektiboa.  
*Osteguna 4, 19:00etan, Audioalde eskolan.*

#### GAURDIA 'Laburbira'

Euskarazko film laburren zirkuitoa.  
*Osteguna 4, 19:00etan, zinean.*

Jimmy jazz gasteiz

MARTXOA

Os. 29 JOHN PAUL KEITH

Lr. 30 HUNTZA + EBRI KNIGHT

APIRILA

Ot. 4 KEE MARCELLO (EUROPE)

Os. 5 THE LIZA COLBY SOUND + THE DAMN TRUTH

WWW.JIMMYJAZZGASTEIZ.COM



# Arabako bertsolari Txapelketa 2019

**MARTXOAK 30**  
Larunbata 17:30ean  
**GASTEIZ, Printzipal antzokian**

Aurkezlea: Oier Suarez Hernando  
Gai-emilea: Marta Ugarte Abasolo

# FINALA

[www.bertsotzale.eus](http://www.bertsotzale.eus)



**Xabi**  
Igoa  
Eriz



**Manex**  
Agirre  
Arriolabengoa



**Peru**  
Abarrategi  
Sarrionandia



**Iñaki**  
Viñaspre  
Simon



**Oihane**  
Perea Perez  
de Mendiola



**Aroa**  
Arrizubieta  
Barredo

Babesle nagusiak



Tokian tokiko babesleak



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala



Antolatzaileak



arabako  
bertsozale  
elkartea

Hedabideak



Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Álava



# Apirila 2019

## OIHANEDER EUSKARAREN ETXEA

### GASTEIZKO KAFE ANTZOKIA

**02** as. | 19:00 Ikus-entzunezkoa



### Slava

Hizkuntza: bulgariera

Filmazpit: zinema jatorrizko bertsoan euskarazko azpituluekin

**03** az. | 18:00 Ikus-entzunezkoa



### Laburbira 2019

9 film laburrez osatutako proiektzioa

GEU Ekarteraekin & Topagunearekin elkartasun

**07** ig. | 19:00 Dantza-saioa



Gorbidapenak: oihaneder

### Patxi Montero

Elgeta

Ilunabarrean dantzan balditza eta euskal dantzen plaza

**09** as. | 19:00 Ikastaroa



### Soziolinguistika hiztegi txikia: hizkuntza

Txerra Rodriguez & Galder Unzu

UEUekin eta Soziolinguistika klusterrarekin elkartasun

**10** az. | 19:00 Ikastaroa



### Lemkera

Jon Mikel Intsausti

Hitz Adina Mintzo, hizkuntza gutxituak ezagutzeko zikloa

UEUekin elkartasun

**11** og. | 19:00 Ikus-entzunezkoa



### Herensuge zurien artean

Inaxio López de Arana

Begi Belarri, ikus-entzunezkoen zikloa

GEU Ekarteraekin elkartasun

## 2019ko aurkezpenak

Ikuskizuna

### GERUZAK

Motokik taldea  
•(Egina)  
300ko kizartza  
OIHANEDER

### OSKOLA

Uko Saenz de Buitrago  
Gerañdik  
•(Egina)  
Musika jaioa  
OIHANEDER

### TRIPAK: HUTS BETE HOTS

Eguzki Donnetan Armengot & Hoziera Berbere Lopezegi  
•Apirilak 4 - 20:30  
Ikuskizun multizpilotara  
OIHANEDER

### AIOKO UHARTEA

Eneko Garbea Lopez de Uralde  
•Apirilak 11 - 18:30  
Itzalak, itenek & akzioetatara  
Ikuskizuna  
AIDABE

### ZER HARTU ONTZITIK ITSASOA HARRI BIHURTZEN BADA

Miren Nobeauri Mariñi & Joseba Boletzna  
•Maiatzak 18 - 18:00  
Emanaldi multizpilotara  
AIDABE



## GAZTE SORTZAILEAK BEKA

2018ko sormen lan irabazleen aurkezpenak

## Apirilak 4 eta 14

Korrika



► Milazangoa sortzeko auzolana | Apirilak 4, 17:00 • Oihanederren

► Oihaneder-ALEA-GEUren kilometroa: 2523 | Apirilak 14, 10:30 • Joan Karlos I-Stockholm (Salburua)

oihaneder.eus

Fray Zorzena Martinez, 2 - Vitoria-Gasteiz

LABURTZAILEAK

Diario

ALEA

berria

ANTZULTZAILEAK



OIHANEDER EUSKARAREN ETXEA  
GASTEIZKO KAFE ANTZOKIA



Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko Udala